

Motorzaleak konzentrazioa egingo dabe urri lehenengoaren 1ean Igorren

12. orrialdea

Arratiako Koruak Cataniako katedralean kantau dau

Oin dala 67 urte sortu zan Arratiako Korua, Agate Deunaren bezperako koplak kantetako. Korukoentzat, erronka eta ametsa zan Cataniako katedralean santearen hilobiaren aurrean kantetea. Eta amets hori gauzatzeko aukerea euki eben garagarriaren 1ean. 12. orrialdea



Tubik lasto jasotze txapela irabazi dau Zazpi Herrialdeetakoan

11. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

300

2018ko abuztuaren 1a
hamabostekaria
www.begitu.org

Zeanuri, Areatza eta Zeberioko jaiak ate joka



Oingo hilean Zeanuri eta Areatzako jaiak ospatuko dira.

Abuztuan, arratiarrak, Zeanuri eta Areatzako jaiak daukiez ospatutako. Zeanurikoak hilaren erdikaldean dira, andramariak. Areatzan barriz, hilaren amaieran, San Bartolome eguna abuztuaren 24an da-eta. Zeberioko jaiak abuztuaren 30ean hasiko dira eta urri lehenengoaren 3ra arte luzatuko dira.

Non edo non, hile osoan entzungo da trikitixearen soinua Arratian. Eta gaubetan, rock bandak eta erromeria taldeak igongo dira herrietako plazetako eszenalekuetara. Zeanurin, Kaotiko; Areatzan, Zea Mays eta Zeberion Hesian, barbarako.

Umorea be ez da faltauko kuadrillen arteko probetan, play-back lehiaketetan, antzerki lanetan eta pailazoen emonaldietan, besteak beste. 5. eta 7. orrialdeak

Urtegiko lanak amaitu dira

Undurragako urtegia 1973 urtea ezkerotik dago martxan. Bilbo metropoliko hornidura bermea sendotutako eta urtegiaren segurtasuna hobetutako, by-pass tunel bat egin dabe. Lanak 2014ko urrietan hasi ziran eta aurtengo garagarriean, martxan ipini dabela jakinarazo eben Ur Partzuergotik. Hiru urte t'erdiko lanak eta hamaika miloe eta zazpirehun mila euroko inbersioa behar izan dira sistemearen hustutako gaitasuna 84 m³/s-tik 288 m³/s-ra pasetako eta seguruagoa egiteko.

Urtegia martxan ipini aurretik, baegoan Undurragan zentral hidroelektrikoa. 1958an, Ulibarri-Ganboa urtegia eta Undurragako zentral hidroelektrikoa inauguratu etorri zan Franco. Abuztuaren 25ean, beteko dira 60 urte eta hori gogora ekarten dauan erreportajea dakar Jon Urutxurtu historialari zeanuriztarrak.

8. eta 9. orrialdeak



IGORRE

Aparkalekua eta beste obra batzuk

Igorreko Udalak lanak kontratauko ditu aparkalekuak egiteko, bidekurutzeetan ikusgarritasuna eta Lasarte Parkeko espaloia hobetutako, Muleira argiztapena ipinteko, Elexalde kaleko asfaltoan zuloak konpondutako eta Mandoia kalean espaloia zabalduetako. Hau da, alkatearen arabera, auzo batzarretan eskatutakoari erantzuna emoteko. Lanok 786.000 euro ingurutan balorau dauz Igorreko Udalak. 6. orrialdea

ARTEA

Ekomuseoaren lekurako beste proiektu batzuk dabil aztertzen Udala

Udalak 35 personentzako aterpetxe turistikoa egin gura dau Ekomuseoaren instalazioetan. Proiektuaren arabera, jatetxea mantentzen egingo da eta behin egon zan garagardotegia be berreskuratuko da. Ekomuseoa, "aisialdirako eta arlo soziokulturalerako" gune barria izatea gura dau udal gobernua. Proiektua esleitzeko pleguak prestatzen dabil.

Arteko EAJ-PNVk barriz, Ekomuseoak zabalik jarraitutea gura dau. Euren proposamena Ekomuseoan inbertidutea eta teknologia barrietara moldatzea da. Jeltzaleen ustez, Ekomuseoa, "turismorako erreklamoa eta bultzatzaile ekonomiko" izan daiteke. 6. orrialdea

Udarako BEGITUREN kamiseta barriak salgai

10 eurotan, Begitu-lagunak 8 euro

Bialdu mezua begitu@topagunea.com
helbidera neurria adierazoz



ARRATIA KOLOREETAN

LITERATURA IRAKURLEEN TXOKOA

Nerea Goioaga Igorrekoak egin-dako proposamenari jarraituz, hemendik aurrera espazio honetan irakurleen literatura-kritikak agertuko dira. Aukerea egongo da beraz, irakurri dozuen liburuaren gaineko zeuen eretxia BEGITUko beste irakurleakaz konpartiduteko.

Arratia Koloreetan sailaren lekukoa hartzeako kolore guztietako literatura proposatzen dau Goioagagak.

"Eleberri baltza edo arrosa, poesia, entsegua, antzerkia, komikia... literatur genero asko dagozala badakigu. Arratiar irakurle amorratu asko garala be jakin badakigu. Liburu artean galtzea dogu gustuko, liburutegi edo liburutegian denpora pasetan dogu baten batek gomendatutako liburu hori topa guran eta behar horretan gabizala, besteren batek inondik eta inora ez irakurteko esan deuskun izenburu horregaz egin dogun topo eta 'igual irakurri egingo dot...' pentsetan dogu atzeko laburpena irakurten gabizan bitartean; izan be ondo dago besteen eretxia ezetutea, baina beti be norberari gustauko jakon ala ez jakiteko balio izan dagian.

Genero eta jatorri ugaritako liburuen kritikak BEGITUko lekutxo bat egitea da proposamena. Euskal literatura zein unibersala beste irakurleak ezetuten emotea, gaur egunekoak eta klasikoak, hementzakoak eta hangoak. Irakurleen eretxia beste arratiarri zabaltzea. Alkarbanatu dagigun kulturea".



TELEFONO INTERESGARRIAK

<p>Larrialdiak Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00 SOS DEIAK 112</p> <p>Guardiako Farmaziak 09:00etatik 22:00etara <i>Garagar. 30etik abuztuaren 5era</i> Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1 Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908</p> <p>22:00etatik 09:00etara Sarasketa. Amorebieta-Etxano.</p> <p>Abuztuaren 6tik 12ra N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1 Tel.: 94 631 30 18</p> <p>22:00etatik 09:00etara Iruarrizaga. Amorebieta-Etxano.</p> <p>Abuztuaren 13tik 19ra Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15 Tel.: 94 673 93 22</p> <p>22:00etatik 09:00etara Gutierrez. Amorebieta-Etxano.</p> <p>Abuztuaren 20tik 26ra Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1 Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908</p> <p>22:00etatik 09:00etara Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.</p> <p>Urte osoan 22:00etatik 09:00etara Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.</p> <p>Medikuak Arantzazu: 94 631 56 89 Artea: 94 673 92 11</p>	<p>Areatza: 94 631 71 52 Bedia: 94 631 34 13 Dima: 94 680 19 74 Igorre: 94 600 74 63 Lemoa: 94 631 31 16 Ubide: 945 38 50 14 Zeanuri: 94 673 91 49 Zeberio: 94 648 20 79</p> <p>Udaletxeak Arantzazu: 94 631 56 89 Artea: 94 673 92 05 Areatza: 94 673 90 10 Bedia: 94 631 42 00 Dima: 94 631 57 25 Igorre: 94 631 53 84 Lemoa: 94 631 30 05 Ubide: 945 45 03 22 Zeanuri: 94 673 91 46 Zeberio: 94 648 10 79</p> <p>Udalen Mankomunitatea 94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15</p> <p>Gorbeialde 94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01</p> <p>Parketxea 94 673 92 79 Igorreko Kultur Etxea 94 673 62 51</p> <p>Gorbeialde Irratia 94 631 52 90</p> <p>Euskotren 902 543 210 Areatzako Notarioratza 94 673 92 26</p>	<p>Bizkaibus 94 612 55 55 Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era. Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era. Jai egunetan: 07:45etik 21:45era orduro.</p> <p>Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jai egunetan orduro 07:15etik 22:15era.</p> <p>Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengoa 22:15ean Galdakaoraino. Jai egunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.</p> <p>Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo. Jai egunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.</p> <p>Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo Ubideatik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin. Jai egunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin. Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta</p>	<p>zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro. Jai egunetan: 08:55etik 20:55era orduro.</p> <p>Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide Lanegun, zapatu eta jai egunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.</p> <p>Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik) Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jai egunetan ez dago zerbitzurik.</p> <p>Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik) Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jai egunetan ez dago zerbitzurik.</p> <p>Zeberio-Ugao Lanegun eta zapatuetan: Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20. * Basauriraino (Ariz) heltzean da. Gainontzekoak Ugaoraino. Jai egunetan ez dago zerbitzurik.</p> <p>Ugao-Zeberio Lanegun eta zapatuetan: Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30, 19:40. Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jai egunetan ez dago zerbitzurik.</p> <p>Artea-Zeberio-Ugao Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00, 16:00.</p>	<p>* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago. Jai egunetan ez dago zerbitzurik.</p> <p>Ugao-Zeberio-Artea Lanegun eta zapatuetan: Ugaotik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40. Basauritik (Ariz): 12:45. * Igorreko Instituturaino heltzean dira. Jai egunetan ez dago zerbitzurik.</p> <p>Ermitabarri-Arrigorriaga Jai egunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.</p> <p>Arrigorriaga-Ermitabarri Jai egunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.</p>
---	--	--	---	--

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.
Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.
Telefonoa: 94 631 73 14.
Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com
Webgunea: www.begitu.org
Zuzendaria: Inigo Iruarrizaga.
Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.
Erredakzino taldea: Irati Urien eta Jon Urutxurtu.
Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Inigo Iruarrizaga.
Publizitatea: Inigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.
Banaketa: Goizalde Badiola (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milkua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Oriol Fernandez eta Iker Perez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).
Tiradea: 7.300 ale.
Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:

Arantzazu

Areatza

Artea

Bedia

Dima

Igorre

Lemoa

Ubide

Zeanuri

Zeberio

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Bizkaia
 foru aldundia
 diputación foral

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoko honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Gatzatua



Esneagaz, ardi-esneagaz legarra egin ostean, egiten dan jateko esnekiari gatzatu esaten jako (gatzatúe, ahoskatuta; gatzartu, Lemoan). Batuan, mamia da. Gatzatua postreetan jaten dogu. Hona hemen errezetatxo egiteko: "Lehenengo esnea egosi, eta epel-epel dagoanean, orduan bota legarra baina tamainuan, lar ez. Nahastu koilara bategaz, eta geldian itxi, esnea gogortu daitela; gero, bota azukerea".

ERETXIA

Arratian be Euskaraldia

Batek baino gehiagok pentsaiko dau: "Zer ete da kalean, irratan, telebisinoan entzuten dan Euskaraldia?" Izan be, gure egunerokoan apurka-apurka sartzean dabilen berbea da: E-U-S-K-A-R-A-L-D-I-A.

Antolatzaileen esanetan, galdera horrek hainbat erantzun daukaz, baina, errazena, baleiteke hauxe izatea: hizkuntza ohiturai buelta emon eta eguneroko hartu-emonetan euskerea gehiago erabilteko ariketea da; 2018ko zementiaren 23tik abenduaren 3ra, euskeraz berba egiten edo ulertzen dogun guztion artean egin dagigun euskeraz. Euskal Herri osoan eta alkarregaz eginda, gure egunerokoan eragin geinke!

Beraz, ariketa sozial bat da, berba eginaz lortzean dana, batzuk euskeraz berba eginaz eta beste batzuk euskerea ulertuteko prest egonaz. Ez da jai bat, ez da euskerearen aldeko ekintza puntual bat, ez da euskerea salbaitzeko dauan estrategia definitiboa, ez da umeentzako proposamen bat... Esan dogun moduan, gure ohiturak aldatzeko eta hori luzaroan mantentzen saiatzeko "ariketea" da.

Eta danon artean egingo dogu; Eusko Jaurlaritza eta Topagunearen arteko alkarlanetik sortu da, eta Euskal Herriko erakunde garrantzitsu guztiak dagoz sustatzaileen artean: Eusko Jaurlaritza, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, Nafarroako Gobernua, Euskal Elkargoa, Euskaltzaindia, EUDEL, UEMA, zein unibersidadeak barbarako. Eta ez da hau kontu makala! Izan be gitxitan ikusi doguz danak eskutik helduta, Bilboko, Gasteizko, Donostiako eta Iruñeko alkateak, Gasteizko Parlamentua, puntako kirolariak zein idazleak helburu bakar bateri lotuta.

Zelan egingo dogu?

11 egunez, ondoko bi roletako bat hartu behar dau parte hartu gura dauanak:



AREATZAKO EUSKARALDIKO BATZORDEA

Ahobizi: "Ulertzen dauanari euskeraz egingo deusat, besteak erderaz erantzun arren. Ezezagunai lehenengo berbea, gitxienez, euskeraz egingo deusat".

Belarriprest: "Euskerea pozik hartzean dot: eistazu euskeraz, nik ulertuten dot eta. Beharbada erderaz erantzungo deusat, baina zuk niri euskeraz egitea gura dot".

Bakotzak bere rola aukeratu beharko dau, behartuta sentidu barik, eta bere euskerearen eza-gutzari begiratu barik. "Zer egiteko prest nago? Zein izango da nik hartuko dodan konpromisoa?" da bakotzak norbere buruari erantzun beharko deusana.

Zer lortu gura dogu?

• Gure hartu-emonetan hizkuntzeagaz daukaguzan inertiak astintzea eta pentsetan doguna baino sarriagotan euskerazko komunikazioa posible dala frogatzea.

• Euskal Herrian euskerea ulertzen dauan jentea pentsetan doguna baino gehiago dala konturatutea, eta euskerea gehiagotan erabili geinkela ikusi arazotea.

• Hizkuntza ohiturak aldatutea norberaren aukerea eta ariketea izan arren, bidea taldean eta alkarregaz, lagunak eta lagun artean,

lankideakaz eta beharlekuan, tabernariakaz zein dendetan, etxeokaz, kalean eta etxean... erosoago eta lagunduago egitea.

• Euskerea erabilteko sare eta egoera barriak, abegikorragoak eta babestuagoak sortutea. Belarriprest diranak be, lasai asko sentidu dagien babes hori, astiro bada be, pozik hartzean dirala euren euskerazko berbak, eta batez be, ezinbestekoak dirala euskerearen sarea zabaltzeko lan nekaezin horretan, ulertuko dauan belarria izatea.

Non egingo dogu?

Bakotzak bere inguruan, bere eguneroko hartu-emon sareetan egitea proposatzen dogu: familiar, lagunartean, lanean, kiroldegian, futbol taldean, eskolan, dendetan... eta Euskal Herri osoan egingo dogu batera: Igorren, Lemoan, Bedian, Zeanurin, Areatzan, Diman, Zeberion, Artea... baina beste hainbat herri eta uritan be bai: Bilbon, Tuteran, Maulen, Barakaldon, Portugaleten, Irunen, Eltziegion, Oionen, Baionan...

Euskal Herriko ahotsaren tonoa aldatuko dogu 11 egunez, eta horren oihartzunak luzaroan irautea lortuko dogu!

Nork hartu leike parte?

16 urtetik gorako herritarrak emon leike izena.

• Ahobizi izateko, euskeraz berba egiten jakin behar da.
• Belarriprest izateko euskerea ulertu behar da.

Erispideak bete ezker, norberak ebatziko dau zein roletan izena emon.

2018ko zementiaren 23tik abenduaren 3ra, Ahobizi edo Belarriprest txapa aldean eroan, eta hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketea egingo dogu!

Eta bitartean, zer egin geinke?

Gure herrietan antolatzen dabizan batzordeetan parte hartu geinke, inguruan Ahobizi eta Belarriprest barriak aktibetan danok egin daikegu gure ekarpena!

Izan Ahobizi eta Belarriprest!
Euskerearen erabilereari bultzada ederra emongo deusagu!

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...
...BAGARA ETA IZANGO GARA

LUMATUTEN



ALASNE ARTETXE

Udan dan-dana
ez da "mehetzen"

Uda. Eguzkia. Bero sapa. Bero itoa. Sargoria. Eguzki izpiak gogorren jotzen daben hilea ei da abuztua. Abuztua, agorrilla, dagonilla... (sinonimotzat izan dodaz gaur arte, gaur bertan agorrilla urri lehenengoa, hau da, iraila, dala jakin dot eta). Unibersidade sasoiaren berben etimologia ikasi behar izan genduan, hor ikasi neban agorrilla "illa" (hila-betea) eta "agorra" (siku) berbetatik etorrela. Halanda be, ez da hau gaur hartu dodan ezusteko bakarra. Heldu da abuztua, bai, planak egin beharreko hilea, askotan "mehe-meheak" badira be. Jiji-jaja. Tabemetan edana (jana be sami). Hondartza. Jiji-jaja. Tabemetan edana (jana be sami). Jaiak. Jiji-jaja. Tabemetan eta txosnetan edana (eta jana sami ez bada be). Abuztuan, egunkariak "mehe-mehe" egiten dira, telebistako programak be "mehe-meheak" dira, gidoi bakoak, ustez umoretsuak, ez buru ez hanka ez daben horreetakoak,

edota behin eta barriz errepikatutakoak, edota kiroletakoak (estropadak, futbola, pelotea...), eta gu geu udarako "mehetzen" ahalegintzen gara (gizarteak eskatzen dauzan estereotipo antzuak segidu guran)... Gure maletetan irakurketa liburuak be "mehetu" egin dira. Oin dala gitxira arte gure udako planen barruan sartzean zan urtean zehar irakurri bako liburu horreen irakurketea, oin hori be ez (salbuespenak albuespen).

Udan "mehetzen" ez dan lana baserritarrena da. Lan karga gitxitzen dan sasoiaren, euren sano "loditzen" da. Bedarra ebagi eta sikitu beharra lastategiak betetako neguari aurre egiteko. (Abuztua=aboztua=abarua=lastategia, hori be unibersidadeko etimologia klaseetan ikasi genduan). Ortuaren erein eta uzta batu. Ardiak eskilau, basoak garbitu... Lan itzela etekin eskasa lortu ahal izateko.

Agian horrexegaitik dagoz gure baserri inguruetan sasitzeak. Agian horrexegaitik dagoz gure baserri inguruak lohi-lohi. Agian horrexegaitik dagoz baserrietako bideetako ubideak lupetzez eta bedarrez beteak.

Baserritarren adina gorantza joan da, eta gazteen artean ez dago erreleborik. Foru Aldundiak baso garbiketarako emoten dauzan diru-laguntzak kentzekotan dabilala irakurri dot gaur. Bigarren ezustekoa. Diru laguntzak "mehetzen" doazen bitartean, zelan egin aurre ba "loditzen" doan lan zamari? Auzolanaren bitartez? Aisialdia gogoko dauan gizarteak ezin deutso horri aurre egin. Baserrien, soloen, basoen heriotzea hur dago.

Uda. Eguzkia. Bero sapa. Bero itoa. Sargoria. Sua.

ZERTZEAN



BEÑAT LANDAJO

Izena ahazten da, baina izanak betiko irauten du

Duela bi urte gaixotasun kroniko bat diagnostikatu zidaten. Egia esan, medikuak gaixotasun honen izena ahoskatzean eta honek nire gorputzari eta bizitzari eragingo zizkion sintomak azaltzerakoan, hitz soil bat etorri zitzaidan burura: ahaztura. Beldurraren menpe geratu ziren nirea den gorputz txiki eta zahar hau osatzen duten organo, hezur eta gihar guztiak. Gaur ez naiz kapaz gaixotasun honen izena eta sintomak oroitzeko, ezta nire alabaren mugikor zenbakia, eta are gutxiago nire ahizparen izena. Burua galtzen baino, burua ahazten hasi nintzen nahi gabe, azkenean nire izena ere ahaztu nuen arte. Urteak daramatzat horrela, izenak nahasten, hitzen esanahia ahanzten eta iraganean niretzat garrantzitsuak ziren gauzei nire memorian lekua kentzen. Etxe barruan giltzapetuta eman ditudan azken urteotan gauza askoren inguruan pentsatzen igaro ditut eguneko ordu asko. Gehienetan, egunero ez esatearren, gaua heltzen denerako egunean zehar egin eta pentsatu dudana guztia ahaztua dut. Egongelan sofan eserita ematen ditut ia amaigabeak diruditen

eta sarritan oso nekagarriak diren egun argiko ordu gehienak. Honez gero ohitu naiz horrela bizitzera, eta hasiera batean nire egunerokotasunean nagusi zen beldurraren existentziaren ere ahaztu naiz dagoeneko.

Izenak ahaztu ditut, bai, baita nire inguruko aurpegiak eta haien helbideak ere. Baina bada oraindik ahaztu ez dudana gauza bat, inoiz ahaztuko ez dudana gauza txiki baina miresgarri bat. Eta hau ez daukat buruan gordeta, bihotzean tatuaturik daramat. Alzheimerren dudala, eta nire bizitza jada heriotzara zuzenduta dagoela badakit. Puntu honetara iritsita, ikasi dut maitasuna ez dela ahazten. 85 urte dauzkat, eta dagoeneko bi eman ditut gaixotasunaren menpe. Gauza asko ez dakizkidan arren, ziur nago ez dudala sekula ahaztuko alabak masailen emandako azken musua, ezta ditudan bost bilobek emandako azken bost besarkadak. Hilko naiz, eta nirekin batera nire memoria, baina ez naiz bakarrik hilko, nire ingurukoengan dudana maitasuna izango dut alboan. Izena ahazten delako, baina izanak betiko irauten du.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Hasi gara Argazki Lehiaketarako argazkiak jasoten. Nastia Ciarolo Zuberok bialdu deusku lehenengoa: Sopelako hondartzan iluntzean ateratako irudi erromantiko hau, hain zuzen be.

Nastiak legez gure lehiaketan parte hartzeako, gogoratu argazkiak begitu@topagunea.com helbide elektronikora bialdu behar dirala. Egile bakoak 3 argazki gehienez bialdu ahal ditu, bere izen-abizenak eta argazkia noz eta non aterata dagoan esanez. Argazki bakoak bere titulua izan behar dau.

Parte hartu eizue munduaren edertasuna gugaz konpartidu eta leku txo hau ederrago egiten lagunduteko. Irabazleak sari ederra eskuratuko dau, udan bizi izandakoa ez aitzuteko modukoa!



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscsl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarribia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegori Zerbait 100
R.P.S. 21/06

**ASESORIA
Gorbeialde**
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

ZEANURI

Kaotiko taldearen kontzertuak animauko dau Andra Mari bezperako gaua

Erredakzinoa

Zeanuriko jaiak soinu, batez be herriko txistulariak ipiniko deutsee atzen 50 urteotan egin daben moduan. Txupina bota eta segiduan, hiru zubietatik egingo dabe kalejirea herriko trikitilariakaz batera, eta jaietako hurrengo hiru egunetan be, holan egingo dabe. Jaiak amaierea be holantxe emongo deustie. Txistua eta trikitixea. Euskadiko Trikitilarien Txapelketea be jokatu dalako herrian Andra Mari Egunean.

Rock puntua Kaotiko taldeak emongo deutse jaiak. Izan be, punk rock talde beterano honek kontzertua eskeiniko dau martitzen gauean.

Herrian antzerki talde bat izanda, antzerki zaletasuna dago Zeanurin eta jaietan be, urtero lez, antzerkia ikusteko aukerea egongo da. Arte eszenikoen eskeintza Murtziako UpArte konpainiak osotuko dau, ikuskizun akrobatikoa eskeiniz.

Lehiaketa gastronomikoak, herri bazkaria, kopaua eta txokolatea be ez dira faltauko.

Abuztuak 13, astelehena

08:00etan, Gorbeira igoera.

15:00etan, herri bazkaria.

19:00etan, txupinazoa eta hiru zubiak herriko txistulari eta trikitilariakaz.

19:30etan, Elektrotxufu txaranga eta kuadrillen arteko jokoak.

21:30etan, "Zeani Loran" eta Jaietako Kartel Txapelketako sari banaketea.

22:00etan, antzerkia *Uribeko eskolea, años 50*.

Abuztuak 14, martitzena

11:00etan, hiru zubiak herriko txistulariakaz.

11:00etatik 14:00etara, umeen jolas parkea.

13:00etan, herriko jubiladuen-

tzako kopaua.

17:30etan, TOR magoa.

18:30etan, pelota partiduak plazako frontoian.

20:00etan, Salbea.

22:00etan, Play-backa. Ondoren Kaotikoren kontzertua eta erromeria Tximeleta taldeagaz.

Abuztuak 15, eguztana

11:00etan, hiru zubiak herriko txistulari eta trikitilariakaz.

11:00etan, meza nagusia. Ondoren herriko txistulari eta trikitilariak, musikaz girotuko dabe plaza eta tabernak.

18:00etan, Euskadiko Trikitilari Gazteen XXXVIII. Txapelketea.

18:00etan, Futbol Txapelketako finala Zulaibarren.

20:00etan, UpArte *Todo encaja* ikuskizunagaz.

22:45etan, Mariachi Imperial Elegancia Mexicana musika entzunaldia.

Abuztuak 16, eguena

11:00etan, hiru zubiak herriko txistulariakaz.

11:00etan, meza nagusia.

11:00etan, sukaldarien egunari hasikerea, Paella, Marmitako, Tortilla eta Erroskilla Txapelketetan izen emotea.

13:45etan, paella, marmitako, tortilla eta erroskillen aurkezpena.

14:30etan, sari banaketea eta herri bazkaria plazan.

17:00etan, Zeanuriko III. Mus eta Briska Txapelketak. Izena plazan bertan emon behar da 16:30 baino lehenago.

19:00etan, III. Dantza Txapelketea.

21:00etan, erromeria Oxabi taldeagaz.

22:00etan, txokolatea danontzat eta ondoren, erromeriak jarraituko dau.

00:30etan, hiru zubiak herriko txistulari eta trikitilariakaz.

Jaien amaierea.



ARRATIA

Formato txikiko jaiak hile osoan zehar

Erredakzinoa

Abuztuan be, hainbat auzune eta ermita ingurutan ospatuko ditue jaiak. Jentetza handirik barik, batez be auzokoak batuko dira giro ederrean, trikitixearen soinu, barauskarria eta alkarren konpainiagaz gozatuteko. Herri kirolak, lehiaketa gastronomikoak eta erromeriak izaten dira ezinbesteko osagaiak.

Dimako Artaun auzuneko San Bizente jaiak, Zeberioko San Adrian Argiñao auzunean eta Zeanuriko Otzerimendiko sanjustoak dira oingo hileko lehenengo jaiak. Hilaren 10ean, San Lorentzo jaiak edo sanlontxoak, Bediako Murtatzen, Lemoako Azurrekan eta Zeberioko Elizondon ospatuko dabez. Hilaren erdian, Igorren eta Zeberioan. Hurrengo eguna be, San Roke hain zuzen be, jai eguna da leku askotan: Dimako Olazabalen eta Bediako San Roke ermitan, barbarako. Hilaren 24an, sanbartolomeak ospatuko ditue Igorreko Urkizun eta Zeberioko Urizarren.

Artaun (Dima)

Abuztuak 4, zapatua

19:00etan, txupinazoa.

19:30etan, txixi-burruntzia.

20:00etan, Umeen Bola Txapelketea

21:00etan, Bola Txapelketea Lourdes Soraluze saria.

22:00etan, musikea.

Abuztuak 5, domekea

12:00etan, meza.

13:30etan, triki-potea.

18:30etan, herri kirolak. Iparraldeko jokoak: Tubi eta Loiola; harrijasotzaileak: Jon Gisasola, "Zelai" eta Karnele Gisasola; azkolariak: Irati Astondoa eta Aitzol Atutxa.

20:30etan, trikitilariak, mozorro lehiaketea eta zozketea.

Abuztuak 6, astelehena

12:00etan, meza.

12:00etan, umeen jolasak eta altxorraren bila.

12:30etan, Mus Txapelketea.

17:00etan, Briska Txapelketea.

18:00etan, zunba.

19:00etan, Tortilla Txapelketea.

20:00etan, Igel Txapelketea.

21:00etan, txokolatea eta jaien amaierea.

Otzerimendi (Zeanuri)

Abuztuak 4, zapatua

12:00etan, meza eta ondoren barauskarria.

14:30etan, auzo bazkaria.

17:30etan, Mus eta Briska Txapelketak.

Abuztuak 5, domekea

13:30etan, paella eta tortillen aurkezpena eta sari banaketea.

15:30etan, Bola Joko Txapelketea.

Murtatza (Bedia)

Abuztuak 10, barikua

12:00etan, meza Murtatzen; ondoren barauskarria eta trikitixea; Mus Txapelketea.

17:00etan, Briska Txapelketea (bikoteko bat gitxienez herrikoa).

Azurreka (Lemoa)

Abuztuak 10, barikua

12:00etan, meza nagusia San Lorentzo ermitan; ondoren, barauskarria trikitilariakaz.

18:00etan, umeentzako jolasak eta Igel Txapelketea.

Igorreko Udako jaiak

Abuztuak 15, eguztana

12:30etan, meza.

13:25etan, barauskarria Goiko Plazan.

16:00etan, Briska, Mus eta Tute Txapelketak Beheko Plazan (bikoteko bakotxa modalidade bakarrera apuntau ahal izango da). Izen emotea, 15:30etan. Saria: euskal produktuen otzarea.

17:30etan, Igel Txapelketea. Izen emotea 17:00etan.

18:30etan, DJ Isma. Bitartean txokolatea.

Hilaren 17tik 19ra, Andra Mari futbol torneoak.

Olazabal (Dima)

Abuztuak 15, eguztana

Abuztuak 15, eguztana

12:30etan, Txakolin Eguna.

18:30etan, antzerkia *Salam*.

Abuztuak 16, eguena

San Roke Eguna

08:30etan, ibilbidea Ilunbera.

12:00etan, meza nagusia.

13:30etan, Nagusien Bola Txapelketea.

16:30etan, Umeen Bola Txapelketea (6-9 urte).

18:00etan, umeentzako baloiak.

18:30etan, *Olazabalgo begiradak* argazki emonaldia.

19:30etan, txokolatea.

20:00etan, zozketea

Abuztuak 17, barikua

San Roke Txiki Eguna

14:00etan, auzo bazkaria.

Bazkalostean Kantu Bat Gara taldea.

San Antolin (Lemoa)

Urri lehenengoak 2, domekea

12:00etan, meza eta barauskarria.

14:00etan, Baba Lehiaketea.

17:00etan, erromeria Jokaldi taldeagaz.

Autobus zerbitzua egongo da 10:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.

 **Zeanuri Udalak** **Jai batzordeak eta Zeanuriko Udalak**

Gora Andra Mariak!

JAI ZORIONTSUAK OPA DEUTSUEZ




IGORRE

Erredakzioa

Garagarrilaren 9ko osoko bilkuran 786.562,73 eurotan balorautako lanak atera ebazan kontratazinora Udalak. Auzo batzarretan eskutako hainbat eskariri erantzuteko dira proiektuok.

Beinat Anzola alkatearen arabera, Udalaren plangintza barruan jasotako Gabolan aparkalekua da



Gabolan aparkalekurako lanak atera ditu kontratazinora Udalak

proiektuaren bihotza. Bere ustez, Agirre Lehendakaria kalean lanak egiten jarraitu aurretik, aparkalekuak ordezkatzeko ezinbesteko egitura da hau. Jubiladuen txokoaren atzekaldean egongo

da eta 90 aparkaleku barri izango ditu.

Kontratazinora be atera dira Kultur Etxetik Mulei auzunera argiztapena ipintea eta Lasarte parkearen ondoan dagoan espaloien konponketea. Espaloia konponketeak zebra bideen muturrak aldatzea ekarriko dau eta horregaitik Elexaldetik Garbera heltzean dan guneraino asfaltauko da. "Lanen tamaina ikusita, Mandoia kalea Agirre Lehendakariagaz alkartzen dan gunea be hobetuko da. Bazterbidean aparketea eragozteko parterreak ipiniz" azaldu deutso BEGITURI Igorreko alkateak.

AEKren euskaltegi barria kokatuko dan gunea be hobetuko da. Espaloiak zabaldu eta kale nagusiagaz loturea hobetuz.

Lan honeen helburuak, "aparkaleku gehiago sortzea, bide-kurutzetean ikusgarritasuna hobetzea, Lasarte parkeko espaloia hobetzea, Muleira argiztapena jartzea, Elexalde kaleko asfaltoan zuloak konpontzea eta Mandoia kalean espaloia zabaltzea" dira.

ARTEA

Ekomuseoan aisialdirako gune barria egin gura dau Arteako Udalak

Erredakzioa

Ekomuseoaren instalazioetako gune horretan, 35 personentzako aterpetxe turistikoa egongo litzateke. Proiektuaren arabera, jabetzea mantentzen egongo da eta behin egon zan garagardotegia be berreskuratuko da. Garagardotegiak bagiletik urrietara funtzionauko leu-ke eta gainontzeko hiletan, ekimen kulturalak, ikastaroak, tailerrak eta abar egingo litzateke bertan. Proiektu hori esleitzeko pleguak prestatzen dabil Udala.

Ekomuseoa oin dala 21 urte sortu eta hasieran ondo funtzionau eban arren Bizkaiko Foru

Aldundia eta Arteako Udalaren babesari esker, atzen 10 urteotan, babes barik bertan behera geratu dala azaldu deutso BEGITURI Iosu Murgia udal gobernuko kideak. "Desegiten dago, kanpoko ondare museistakoa ia ustelduta dago. Oin ezinezkoa da kanpoko ondare berreskuratzea" dino.

Kanpoko hondatuta egoteaz gainera, museoa errepereratu ezina egiten daben beste erro-zi batzuk be badagozala dino Murgia. Kanpoko guztia "modu ilegalean dago funtzionetan" eta bigarren solairuak ez dau irisgarritasun legea beteten.

Egoera hori kontuan hartuta eta

hogei urteko zerbitzuaren emakida amaituta, Ekomuseoa itxi eta bertan aterpetxe zabalduetako proiektua aztertzen dabil udal gobernua.

EAJ-PNVk Ekomuseoa zabalik gura dau

Arteako EAJ-PNVk barriz, aldarrikatu dau herriko Ekomuseoak zabalik jarraitu beharko leukela. "Museo etnografikoa Arteako hainbat herritarren artean zabaldu ahal izan zan eta bertatik egin dan lanari esker ehunka personari irakatsi ahal izan jako gure inguruaren historiaz eta XVIII-XIX mende arteko euskal herriaren ohitura eta bizimoduez", azaldu dabe udal talde jeltzaleko ordezkariak prensa ohar baten bidez.

"EAJ-PNVko ordezkariok egiten dogun proposamena da Ekomuseoan inbertidutea eta teknologia barrietara moldatzea, bisitariak iraganera bidaiatzeko aukerea emateko eta nondik gatozan eta zelan bizi ginan azalduetako", azaldu dabe jeltzaleak. Izan be, konbenziduta dagoz "erakusketegia eguneratzeko ahalegina egiten bada, hau da, gizartearen beharren araberrako sistema teknikoak jartzen badira eta ostalaritza eskeintza ona egiten bada, Ekomuseoa barriz izan daitekela turismorako erreklamo eta bultzatzaile ekonomiko, "ez bakarrik udalerrientzat, baita eskualde osoarentzat be".



ARRATIA

Txartel personalizauagaz zabalduko da edukiontzi marroia

Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) zati organikoaren gaikako bilketea hobetuko dau, giltzen orde zartel personalizauko itxigailu adimendunak ipinita. Honetarako 77.650 euro inbertiduko dira, eta inbersioa posible izango da Bizkaiko Foru Aldundiko diru-laguntzari esker.

AUM aurrendari izan zan Bizkaian, edukiontzi marroia jarri ebanean zati organikoaren gaikako bilketerako. Bost urte emon ostean prozesua hobetuteko, urtea amaitu orduko edukiontzi guztien estalkien orde zartel personalizauko itxigailuak ipintea dago aurreikusita.

Zati organikoaren hondakin begetalak gaika batzeako zerbitzua guztiz finkatu zan 2013ko urtailean, eta ha izan zan arlo horretako lehen esperientzia Bizkaian, eskualde mailan. AUMk emondako datuen arabera, gaur egun, 2.000 familia inguru dagoz izena emonda; hau da, Arratiako bizikidetzaren unida-

deen %30, eta uriguneetan bizi diranen %50.

Aldi berean, eta zati organikoaren kudeaketa egokia landa gunetara eta ortua edo-eta lorategia daukien etxebizitzetara be heldu daiten, etxeko konpostajea sustatzen dabil AUM. "600 familia baino gehiago dagoz izena emonda, eta familiok jaso ditue ja euren konposta egiteko jagokien prestakuntza eta jagokiezan baliabideak". Holan, etxeko konpostajearen edo autokonpostajearen bidez, lursailak daukiezan etxebizitzetan eta eskola zentroetan, urtero zati organikoko 100 tona baino gehiago kudeatzen dirala emon dabe jakitera AUMtik.

Izen emotea

Zerbitzura apuntetako eta beharrezko materialak (ontzia, boltsa konpostagarriak, giltzea eta aurrerago txartela) jasoteko interesa daukien euren Udalera edo Arratiako Udalen Mankomunitatera jo leikie.

UBIDE



Giro ederra madalenetan

Garagarrilaren 22an Madalenak ospatu ziran Ubiden. "Txapelekuek" botata hasi zan ubideztar askok gogoz etxoten daben eguna. Goizean Tortilla Txapelketari ekin eutsien herritarrek. Aurkeztu ziran ia dozena bat tortiletatik David Astorganorena izan zan onena; epaile beharretan, hainbeste urtetan Urbide jabetxea gobernau daben Ester eta Alberto gaztea izan ziran. Meza ostean barauskarria egoan prest, inguruan trikitixea eta panderoa lagun. Bazkalostean ume jokoen txandea izan zan: lokotxak, igela, zaku lasterketea, sokatirea eta piñatea. Arrastia Felix Newman showmanak girotu eban, eta beronek esan ebazan botazinoz ebatzi zan I. Bigote Txapelketako irabazleen izenak be. Gizonezkoetan Aritz Azkorbebeitia, andrazkoetan Izaskun Ibartutxi eta umeen kategorian Peio Bengoa. Bitartean ez zan sardinarik eta txokolaterik faltau, hurreratu ziranentzat gura beste. Gero gaua luzatu bazan be, behin zozketea eginda eguna Txapito Guzman eta Ibarroko Langostinuk musika taldeagaz amaitu zan.

AREATZA

Zea Mays, Kalakan eta Korrontzik joko dabe Areatzako jaietan

Erredakzinoa

Areatzak beti izan dau musika zaletasun handia eta hori ikusten da jaietako egitarauan. Areatzako Bandak, Areatzako Danborradak, Areatzako Txistulariak eta batukadeak girotuko dabez jaietako 8 egunak. Txotxongi-loak, Erraldoiak eta Buruhandiak be, ikusi ahal izango dira jantzan. Gaubetan barriz, kontzertu eta erromeriak. Beste batzuen artean, Zea Mays, Kalakan eta Korrontzi izango dira. Su artifizialak be ez dira faltauko urteroko zitara. Jaiak hasi orduko, aurreko egunean, Radiocrimen taldeak joko dau Motxo tabernan.

Abuztuak 23, eguena

14:00etan, txupinazoa. Ondoren, Txotxongilo, Erraldoi eta Buruhandiak, Areatzako Txistulariak, Banda eta Bizkaiko Gaiteroak.
17:00etan, Areatzako BatucAKKB batukada taldea.
20:00etan, Salbe herrikoia. Hilario Eslavaren Salve Regina. Areatza eta beste herrietako lagun taldeen eskutik.
20:30etan, Txapito Guzman & Ibarako Langostinuek taldea plazan.
23:30etan, XXV. Play-back Lehiaketea. Jarraian erromeria Trikizio taldeagaz.

Abuztuak 24, barikua

06:00etan, mortero jaurtiketea.
11:00etan, txistu eta metalezko musika tresnen kalejireia. Buruhandiak.
11:30etan, meza nagusia.
12:15etan, txistu eta metalezko musika tresnen kalejireia. Buruhandiak.
12:30etan, Areatzako umeen jantza taldea eta Markina-Xemeingo Zerutxu Dantza Taldea.
13:30etan, kalejireia Areatzako trikitilariakaz.
18:00etan, eskupelota partiduak. Patxi Salbidegoitia eta Urtzi Amuriza vs Peio Zuloaga eta Gorka Goti; Mikel Beldarrain eta Peio Artola vs

Ekhi Ziarrusta eta Josu San Sebastian; Ander Elezkano eta Endika Garcia vs Imanol Arrese eta Oier Etxebarria.

23:00etan, erromeria Altxa Porru taldeagaz.
02:30etan, txokolata.

Abuztuak 25, zapatua

11:00etan, puzgarriak plazan.
18:00etan, Danborrada Txikiaren kalejireia.
22:30etan, kuadrillen kalejireia eta suak. Areatzako kuadrillak, Areatzako Danborrada, Zo-Zongó!! taldearen *Psycho-Clown* ikuskizuna, su artifizialak eta Pasai txarangea.
00:00etan, erromeria Garilak 26 taldeagaz.
02:00etan, Areatzako Danborradaren kalejireia.

Abuztuak 26, domekea

12:30etan, kalejireia Areatzako Trikitilariakaz.
13:30etan, Pintxo Lehiaketea Areatzako Tabernari Elkartek antolatuta.
18:00etan, pala eta eskupelota partiduak. Pala kadeteak: Olatz Beitia eta Mairu Uriarte vs Bego Aldekoa eta Amaia Zuluaga; Eskupelota kadeteak: Iker Larrazabal eta Enaitz Arandia vs Anton Erkiaga eta Maren Emaldi; Pala nagusiak: Olatz Arrizabalaga eta Leire Etxaniz vs Yanira Aistorena eta Maite Ruiz de Larramendi.
21:30etan, Areatzako Banda eta Korrontzi Band.

Abuztuak 27, astelehena

11:30etan, arimen aldeko mezea.
13:00etan, hirugarren adinekoentzako kopaua.
14:00etan, Makailao Txapelketea.
16:00etan, Briska Txapelketea.
18:00etan, erromeria Jokaldi taldeagaz.
20:00etan, txokolata txurroakaz hirugarren edadekoentzat.
22:00etan, Kalakan taldearen

kontzertua Zubizarra plazatxoan.

Abuztuak 28, martitzena

13:45etik **14:30**era, Paella Txapelketea (aurkezpena).

17:00etan, Tute Txapelketea.

20:00etan, Burrenba Elektrotxarangea.

23:00etan, kontzertuak: Mocker's, Zea Mays eta jarraian DJ Markelin.



ZEBERIO

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak eta Hesian taldea sandonietan

Erredakzinoa

Abuztuaren 30ean hasi eta urri lehenengoaren 3ra arte, Zeberio herriko jaiak ospatuko ditu. Egun horreetan, kontzertuak, kalejirak, erromeriak, pailazoak, antzerkia, lehiaketa gastronomikoak eta kirolak ondo pasetako aukerea eskeiniko deutsee edade guztietako zeberioztar eta hurreratutako guztiai. Erromeriak Oxabi eta Jokaldi taldeakaz, elektrotxarangeak, Hexen eta Hesian taldeen kontzertuak, EinGo Kantan ta Dantzan... musikeak herria hartuko dau jai egunetan. Eta beste motatako ikuskizunak be egongo dira, pailazoak eta antzerkia, berbarako. Lehiaketak, play-backa, gastronomia lehiaketak, eta abar; eta kirolak be ez dira faltauko.

Abuztuak 30, eguena

18:30etan, kuadrillen jaitsierea Zubibarririk plazara, animazinoa herriko trikitilari gazteakaz.
19:00etan, txupinazoa. Txubel eta Buruhandiak. Ponpak.
19:30etan, umeen jolasak.
21:00etan, EinGo Kantan ta Dantzan taldea.
21:30etan, herri afaria. Afalostean, EinGo Kantan ta Dantzan taldea.

Abuztuak 31, barikua

11:30etik **14:00**ak arte, umeen parkea, puzgarriak.
13:00etan, kalejireia, herriko trikitilari gazteakaz.
14:00etan, bits Jaia.
15:00etan, jubiladuen bazkaria.
17:00etan, herriko jubiladuen Mus, Tute eta Briska Txapelketak.
19:00etan, musikea Jokaldi taldearen eskutik

23:00etan, erromeria Oxabi taldearen eskutik.

Urri lehenengoak 1, zapatua

11:30etan, txirindulari martxea umeentzat. Ibilbidea: Ermitabarri-Ugao-Zeberioko plazea. Alkartzeko eta ibilbide osoa egiteko Ermitabarrin **11:30**etan, edo Ugaon **12:00**etan. Aukerea dago edozein lekutan txirindulari martxan sartzeako. Derrigorrezkoa izango da kaskoa eroatea. Txu-Txu trenan ibilbide osoan joango da.
11:30etan, Txu-Txu trenan.



Igazko play-backa.

Abuztuak 29, eguaztena

12:00etan, bits jaia.
16:00etan, Mus Txapelketea.
17:30etan, umeen play-backa.
18:30etan, Kolore Bonba Jaia DJ Ismak girotuta (erropa zaharrakaz joatea komenidu da).
22:00etan, kontzertu sorpresa Motxo Tabernan.

Abuztuak 30, eguena

11:00etan, xakea. Aldi bereko partidak Alfonso Romero maisu nagusiagaz.
20:00etan, Tortilla Txapelketea (aurkezpena).
21:30etan, afari herrikoia.
23:00etan, jaien agurra eta azken txupina.

13:00etan, kalejireia herriko trikitilari gazteakaz.

14:00etan, Bakailao, Patata Tortilla eta Paella Txapelketak.

18:00etan, Guretzat fanfarria.

21:00etan, Play-backa. Erabiliko dan abestia pendrive baten grabau eta udaletxera eroan behar da, abuztuaren 29a baino lehen.

23:00etan, kontzertuak: Hexen, Hesian eta Fritanga elektrotxarangea.

Urri lehenengoak 2, domekea

12:00etan, kalejireia txistulariakaz.
13:00etan, Laura Orueren aldeko XIX. urteurreneko mezea. Ondoren, barauskarria.
13:30etan, Etorri Dantza Taldea.
17:30etan, Zeberio eta inguruko Pelotari Gazteen Txapelketea.
20:30etan, antzerkia. Mungiako Antzerkizale Elkartean eskutik *Euskaratzen* antzezlanaz.

Urri lehenengoak 3, astelehena

12:00etan, Goatzera, egurrezko jolasak ume eta helduentzat.
13:00etan, poteoa Koldo eta Unai trikitilariakaz.
15:00etan, indababak lagun artean.
18:00etan, pailazoak. Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Borobilean* antzezlanaz.
19:30etan, jaien amaiera.



Jai batzordeak eta
Areatzako Udalak
jai zoriontsuak opa deutsuez

Ondo pasau jaietan!



Zeberio Udalak
jai zoriontsuak opa deutsuez

Ondo Pasau Sandonitan!

UNDURRAGAKO URTEGIA

Undurragako urtegiaren segurtasuna hobetuko dau egindako by-passak

Hainbat hilabetetan zehar probak egin ondoren, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak Undurraga presako by-pass zerbitzua martxan ipini dau. Partzuergoaren arabera, honek Bilbo metropoliko hornidura bermea sendotuko dau bildutako baliabideak erabiltea ezinezkoa danean, eta hobetu egingo dau urtegiaren segurtasuna, araubiderik zorrotzenagaz bat eginaz.



Ricardo Barkala Ur Partzuergoako presidentea, Elena Unzueta Iraunkortasuna eta Inguru Naturala Zaintzeko Foru Diputadua, Eusebio Larrazabal Zeanuriko alkatea eta Ernesto Martinez de Cabredo URA Agentziako zuzendari nagusia.

Erredakzioa

Lur-azpiko galeriak 1,3 kilometro ditu eta urtegiaren ezkerreko aldean dago, urtegiaren amaieratik oinarri arte.

Segurtasuna

Lanak 2014ko urri lehenengoan hasi ziran eta 11.722.330,49 euroko inbersinoa egin da, Bizkaiko Foru Aldundiagaz sinatutako hitzarmenaren kargura finantziatuta. Tunelak 1.300 metro inguruko luzera dauka eta 3,70 metroko altuera. Horri esker, sistemearen hustuteko gaitasuna 84 m³/s areagotuko da eta 288 m³/s-ko gaitasuna izatera helduko da, presa eta urtegien segurtasunaren gainean indarrean dagoan araubidea betez.

Undurragako urtegia 1973. urtea ezkeretik dago martxan. Barazarreko urtekeran dago, Zeanuriko herrigunetik hegoaldera eginez kilometro bateko distantzia. By-passaren obretan, tunel bat sortu da, urtegiako ezkerreko harkaitzezko mendigunetik

igartzen dana. Tunelak hiru helburu dituala azaldu dau Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak.

Alde batetik, Beteluriko EUTko edateko ura bermatzeko tresna izatea da helburuetako bat. Hori hodi handi biren bitartez egingo dau, urtegiaren amaierako puntutik zuzenean 5 m³/s-ko emaria emonaz, eskuragarri dagoan biltegi-bolumena erabili barik. Hori egitearen errazoa Bilbo Handiko hornidura bermatzeko beharra asetzea da. Baita, beharrezkoa baldin bada, presan konponketak egiteko edo sistema funtzionetea eragozten dauan istripuren bateri aurre egiteko be, edo bizilagunak hornitzeko beharrezkoa dan ura izateko.

Tunelaren beste helburu bat, Undurragako presearen segurtasun hidroligikoa hobetutea da. Lan honeen ondorioz, nabarmen handituko da egiturearen hustuteko gaitasuna: huste-gaitasuna 64 m³/s gehituko da salbuespenezko urtegiaren gehiengorako eta 110 m³/s gailur kotarako. Horregaz, Presa eta Urtegien Se-

gurtasuneko Araubide Teknikoa beteko da, uriola hipotetiko oso handiari aurre egiteko modukoa. Holango uriola, gaur egungo ereduaren arabera, 5.000 urtean behin gertatu daitekean gertakaria ei da.

Atzenik, hasikerako proiektuari gehitu jakiezan hobekuntzai esker, Undurragako urtegiaren prezipitazio handien ondorioz larregizko uhertasuna daukien uriolak saihesteko aukerea dago, eta, beraz, Beteluriko edateko uren tratamendutegira helduten dan ur gordinaren kalitatea hobetu egingo da.

Hiru helburu horreetan oinarrituta, instalakuntza barrien hiru funtzionamentu egoera posible honek ezarri dira: uriola handia gertatzen bada presearen segurtasuna gehitzeko, bertan mantentze lanak egitea ahalbidetzeko eta Arratia ibaiak uhertasuna daukanean Beteluriko EUTko ur gordinaren kalitatea bermatzeko.

Elementu nagusiak

Undurragako urtegiaren, tunelaz

gainera, beste elementu batzuk be egin edo aldatu dira hiru helburu horreek bete ahal izateko. By-pass tunela, hornidurarako by-passa, urtegiaren amaierako puntuko hartzeako gunearen obrak, bideratzeko presa txikerra eta deskarga obrea presearen oinarrian, dira elementu horreek.

Urioletarako by-pass tunela, luzeran 1.300 metro inguru daukan galeria da, urtegiaren amaieratik presaren oinarri arte doana. Sekzino hidraulikoak ganga forma dauka, zabalera 3,7 metro ditu eta altueran 3,7 metro, ganbera giltzarriagaz.

Beteluriko emariaren 5 m³/s-ko hornidura zuzena bermatzeko Undurragako urtegitik pasau behar izan barik, hornidurarako by-

passa egin dabe. Tunelean, hodi bi igarotzen dira, beira-zuntzez indartutako plastikozkoak, eta 900 mm-ko diametroa daukie.

Urtegiaren amaierako puntuko hargunean, lau konporten bitartez, emaria, by-pass tunelera eta hornidurarako by-passera bideratzen da. Emaria bideratzeko, presa txikerra egin dabe hargune obrearen urtegiaren amaierako puntuan eta presa honek guztiz zarratzen dau uraren pasabidea Undurragako presara, by-pass tunelera bideratuz.

Atzenik, presearen oinean egindako deskarga obreak, tunelatik igarotzen dan uraren energia sakabanatzen dau Arratia ibaira ibairatu aurretik.

By-pass tunela

Undurragako urtegiaren 2014an hasi ziran lanak eta tunelari 2015eko martian ekin eutsien. Tunelak 1,3 kilometroko luzera eta 3,70 metroko altuera dauka eta 900 mm-ko lur azpiko hobi bi. Arratia ibaitik Undurragara heltzean dan uraren kalitatea hobetuteko sistema bat be ezarri da.

Obra handi honen bihotza tunela da, eta berau egiteko lanak ikusgarriak izan dira.



UNDURRAGAKO ZENTRAL HIDROELEKTRIKOAREN 60. URTEURRENA

Franco Arratiara etorri zanekoa

1958ko abuztuaren 25ean, Franco etorri zan Undurragako zentrala inauguratuko.



Franco Undurragako zentral elektrikoan.

Argazkia: Arqué.

Jon Urutxurtu

Abuztuaren 25ean beteko da Franco Arratian egon zanaren 60. urteurrena. 1958ko abuztuaren 25ean, astelehenean, Arabara eta Bizkaira bisitea egin eban Francisco Franco estaduburuak, besteak beste Aguas y Saltos del Zadorra, Sociedad Anonimaren instalazio hidroelektrikoak inauguratuko.

Zadorra, Santa Engrazia eta Baias erreken urak biltzeako eregi ziran Ulibarri-Ganboa eta Urrunagako urtegi arabarren eta Zeanuriko Undurraga auzoan dagoan Barazarko Zentralaren inaugurazioagaz emon jakon hasikerea bisiteari.

Instalazio horreen betebehara Altos Hornos de Vizcayak Barakal-

don eta Sestaon eukazan lantegi siderurgikoentzako energia hidroelektrikoa ekoiztea zan; Bilbo Handiko eta Gasteizko ur hornikuntza bermatzeko betebehara geroagoko gauzea izan zan. Obra guztiak AHVren filiala zan Aguas y Saltos del Zadorra, S.A.ren ardurapean egin ziran, eta 1947 eta 1958 urteen artean luzatu ziran.

Sasoi haretako egunkariak inoenez, Franco udako oporrak pasetan egoan Donostian; goizean handik abiatu eta 10:55ean heldu zan Ulibarri-Ganboara. Ailegeteagaz batera Gasteizko Elizbarrutiko Peralta gotzainak urtegia bedekatu eban, jarraian Urrunagakora bisita laburra egin eban, eta ondoren Zeanurirantz zuzendu ziran Franco eta bere

laguntzaileak.

Ongi etorria Ubiden

Errepidea, bereziki Araba eta Bizkaiko muga inguru banderez eta Franco, Franco idatzita erorien pankartez josita agertzen ei zan. Abuztuaren 25eko Hierro egunkariaren argazki batean ikusi daitekenez, Kaudiloa agurtzeko *Vizcaya por España y por Franco* inoan arku handi bat jarri eban Ubideko sarreran.

11:45 inguruan, Zeanuriko Undurraga auzunean dagoan Barazarko zentral hidroelektrikora heldu zan Franco, eta beragaz besteak beste, Planell, Industria Ministroa, Vigon, Obra Publikoe-

takoa eta Alonso Vega, Gobernazio Ministroa egozan.

Gurpide Bilboko gotzainaren bedeinkapenez, ofizialki inauguratu ziran zentral hidroelektrikoaren instalazio barriak.

Ostean, Bilborantza abiatu zan, Bilbon, Barakaldon eta Areetan egin behar ebazan bisitakaz jarraitzeko asmoagaz, "Zeanuri, Areatza, Artea, Igorre, Lemoa, Galdakao, eta abarreko jentearen txalo artean" (Hierro, 1958-VIII-26). Gertaera ha ezetu eban arratiar batzuk gaur egun gogoratzen dabenez, Francoren bisitea zala eta, errepideko batxeak hareaz eta galipotaz estali ebezan eta batek baino gehiagok esan ei



Franco Undurragako zentral elektrikoan. Argazkia: Arqué.



Iturria: *Vizcaya. Revista de la Excelentísima Diputación Provincial de Vizcaya. 1958.*

eban: "ia Franco sarriago etorten dan, holan errepidea konpondu egingo deuskue eta".

Abuztuaren 26ko La Gaceta del Norte egunkariak holan inoan lehen orrialdeko izenburuan: "Vizcaya recibió a Franco engalanada, ofreciéndole el homenaje de su entusiasmo, desde Barazar hasta el Abra". Egunkariak isildu ebena zera zan: Kaudiloa agurtzera joateko baldintzapean, ordu libre eta ordainduak izan ebezela lantegietako beharginak.

ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

Basoak garbitzeko makineria

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKURUA ETA SALMENTA

MENDIA



Ibiltariak Aretzako Martxaren aurreko edizino baten.

Argazkia: Lamino Kirol Kluba.

Arrabatik pasauko da Aretzako Mendi Martxea

Urri lehenengoaren 22an izango da aurten Aretzako Mendi Martxea. Antolatzaileak astegoien bi atzeratutea ebatzi dabe Arrabara, Aretzako edur-zulotik igoteko baimena izateko. Holan, partaideak Gorbeia inguruko bistarik ederrenakaz gozatu dabe.

Erredakzinoa

Urri lehenengoaren 15era arte sai zuria egoten da Itzinan eta hortik ezin dira mendi martxak pasau.

Ibiltariak 08:00etan abiatuko dira aukeran dagozan ibilbideetako bat egiteko. Ibilbide luzeak 26 kilometro izango ditu eta 1.500 metroko desnibela eta laburrak 18 kilometro, 700 metroko desnibelagaz. Ibilbidearen zati handi bat igazko berbera

izango da. "Aretzatik urtetako eta Aretzara ailegetako erabilten doguna, baina aurten Arrabaraino igongo dogu, Potxoletatik pasauta. Zati hau ikusgarria da" azaldu deutso BEGITUri Xabi Iturriaga antolakuntzakoak.

Martxa laburra egiten dabenak, autobusez eroango dabez Bikotzganera, desnibel dezente kentzeako eta zatirik ederrena egin ahal izan dagien. Barriro homologau daben PRB19 bidetik joango

da martxea.

Zazpigarren edizino honetan beste barrikuntza bat be izango da, anoagune bat lekuz aldatu dabe-eta. Lehenengo, betiko moduan, Mendigana eta Hirimugarrieta mendien inguruan egongo da, eta bigarrena, Arraban. Amaieran, parrilladea, oparia eta zozketea egongo da partaideentzat.

Martxaren helburu nagusia Aretzako auzune eta lekurik interesgarrienak ezetuten emotea da. Igaz 200 persona inguruk hartu eben parte.

Aretzako Udalak, AKKBk, Lamino Kirol Klubak eta Frakazuri Gazte Asanbladak antolatuten dabe Aretzako Mendi Martxea.

Izen emotea

Parte hartu ahal izateko izena online emon daiteke abuztuaren 5etik urri lehenengoaren 20era arte www.aretzakomendimartxa.blogspot.com webgunean, edo-eta martxa egunean bertan, urri lehenengoak 22, urtekerak puntuan 07:15etik aurrera.

FUTBOLA

Andra Mari futbol torneoaren XXXI. edizinoa Urbieta zelaian

Erredakzinoa

Arratia Futbol Taldeak antolatuta, abuztuaren 17, 18 eta 19an, Andra Mari futbol torneoaren 31. edizinoa jokatu dabe, Arratia, Leioa, Amorebieta eta Santurtziko gizonzkoen futbol taldeak Urbieta zelaian.

Hilaren 17an, barikuan, arrastiko 18:00etan, Arratia eta Leioa neurtuko dira. Leioako taldean be arratiar bik jokatu dabe Lander Yurrebasok eta Xabi Etxebarriak, hain zuzen be. Hurrengo egunean barriz, Amorebietak eta Santurtzik jokatu dabe finalerako pasea. Domekan izango da finala, hau be Urbieta 18:00etan. Han, aurreko egunetako partiduetako irabazleak saiatuko dira aurtengo

Andra Mari torneo euren gantzen.



HERRI KIROLAK

Aizkoran errekorra ezartzen saiatuko dira Irati Astondoa eta Alatzne Etxaburua

Erredakzinoa

Alatzne Etxaburua Euskadiko sega eta azkora txapeladunak, garriko arazoak dirala-eta, azkora marka ezarri itxi gura deutso kirol lehiaketetan parte hartzeari. Hori dala eta, Zizurkilgoa, segan zein azkora askotan aurkari izan dauan Irati Astondoa zeanuriztarraz neurtuko da abuztuaren 23an, Bilbon, Aste Nagusian,

eguerdiko 12:00etan. Erronka, 2 metro eta 18 cm-ko egurra moztea izango da.

Herri kirolean bideak zabal-tzen

Etxaburuak Irati Astondoa gura izan dau lagun erronka horretan. "Biok hasi ginenez azkora bidea zabal-tzen, bion artean saiatuko gara errekorra ezartzen" dino Zeanuriko kirolariak.

Abel Lapatza Iza
Taxi zerbitzua 24 ordu
Dima
946 317 252
608 287 249

Kili~Kili
Antzoa eta Puertuak
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel.: 94 673 63 61

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com
Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre

INMOBILIARIA
Tfnoa: 94 631 80 04

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK
MOKETA - SINTASOLA - PAPERERA
Elexalde, 33 D - 1º - 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 621 64 62 - 906 854 018

Arreta gutxiarik
- Lapurren puzketak
- Logopodia
- Fisioterapia
- Puzketak
- Jantzi arazoak
- eta beste gehiago

izkaifisios
IGORRE FISIOTERAPIA ZENTROA
Elexalde, 4
48140 Igorre
94 631 35 08
igorre@bizkaifisios.com
ANDRA MARI KLINIKA
Pontzi Zabala, 1
48960 Galdakao
94 457 23 64
galdakao@bizkaifisios.com

Olaxte
Graduazioak
- Ikusmen terapia
- Ikusmen gubitua
- Begiko tentsioa
- Lentilen adaptazioa
- Kiroletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaxteoptika@hotmail.es

Orre
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 2
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa: 94 673 63 75

AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Calle, 29 Tfnoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAI

NAIARA HORTZ KLINIKA
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

HERRI KIROLAK

Tubik jantzi eban Lasto Jasotze txapela Zazpi Herrialdeen Herri Kirol Txapelketan



Jose Martin Bustinza "Tubi".

Erredakzioa

Garagarriaren 28an jokatu da aurten, Gasteizko Foruen plazan, hamar herri kirol eta Euskal Herri osoko kirolariak batzean dituan txapelketa hau. Lasto Jasotzean, Gipuzkoako ordezkariak, Tubi Bustintza dimoiztarrak, jantzi eban txapela. Beste arratiar batek be parte hartu eban, Ruth Linaza lemoiztarrak, Arabako ordezkari dan Badaiotz taldeko soka tiralariak, hain zuzen be.

Tubik 25 altxaldi egin ebazan Gasteizen, Beñat Amade getxoiztarrak baino hiru gehiago.

Amade Bizkaia ordezkatzan joan zan Zazpi Herrialdeen arteko txapelketara, Diman, Bizkaiko Las-

to Altxatze txapela irabazi ebalako bagilaren 29an. Bizkaikoan be 22 jasoaldi egin ebazan, Jon Loiola dimoiztarrak baino bat gehiago. Herrialde bakotzeko txapelkunak joaten diranez Zazpi Herrialdeetara, Jon Loiolak ezin izan eban parte hartu.

Ruth Linaza lemoiztarrak sokatiran

Sokatirako Arabako ordezkari-tzea Badaiotz taldeak izan eban. Bertan, Ruth Linazak hartu eban parte. Aurten, sokatira taldeak mistoak izan dira; hau da, 4 andrazkok eta 4 gizonzok oso-tuak. Saillapenean emaitza ez zan ona izan; izan be, laugarrenak

geratu ziran eta lau taldek hartu eban parte, arazoak zirala-eta, aurten Iparraldekoak ez diralako txapelketan izan.

Dana dala, euren helburua taldea osotutea zala dino lemoiztarrak. "Badaiotzen ez dago gizonzokorik eta taldea osotutea zan erronkea" azaldu deutso BEGITURI. Talde mistoen parte hartzea azpimarratu gura dau Linazak, herri kirol txapelketa honetan andrazkoen parte hartzea bultzatzeko balio izango daualakoan. Baina "historikoa, igaz izan zan, andrak bakarrik osotutako taldeak parte hartu ebanean" dino tiralariak.



Ruth Linaza.

TXIRRINDULARITZEA

Espainiako Kopako Valentziako proban bigarren egin eban Garrok

Erredakzioa

Garagarriaren 14an, Chesten (Valentzia) jokatu zan txirrindularitza egokitutako Espainiako Kopako bosgarren proba. MC2 kategorian, Oskar Garro igorretarrak bigarren postua lortu eban Maurice Eckhard-en atzetik.

Publikoaren aldetik giroa ederra egon zan proba jokatu zan motor zirkuituan, baina eguraldiak ez eban lagundu bero handia egiten eban eta. "Bero handia zan eta ezin izan neutsan lehenengoaren erritmoari eutsi" dino txirrindulariak. Ha ta guzti be, bigarren sartu zan Chesteko zirkuituko helmugan.

Espainiako Kopako puntuagarri diran beste bost proba geratuten dira. Atzena, urri bigarrenaren 20an izango da Badajozen.

Oskar Garro bigarren da oin arteko saillapen orokorrean.

Munduko Kopa

Aurreko astean Emmen-en (Hollandia) jokaturako Munduko Kopako lasterketan, 13. postuagaz konformau behar izan zan igorretarra. 63 kilometroko lasterketa gogorra izan zan eta mundu mailako txirrindulari onenetakoak erritmo gogorra markau eban. Atzen itzulira arte Garro aurrean egon zan, baina ezin izan zan lehenengo postuetan sartu.



Oskar Garro.

ZURE ZERBITZURA

- ✓ Avia guztira 176 gasolindegil
- ✓ Avia Adenor 35 gasolindegil

ADENOR Igorre
www.aviaenergias.es

GURE BIHOTZA

- ✓ Operazio-Zentroa Bilboko Portu Autonomoan



Dirabizko Harri Kostetxoan

Gure
ikastetxeak

Euskalduna
kalidadezkoa
herrikoa

JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Artea
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 673 62 37 Igorre
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre

Haur Hezwuntza
Lehen Hezwuntza
Derrigorrezko Bigarren Hezwuntza
Batxilergoa
Hezwuntza Zuloan

2 urtebiu 18ra

JAIA

Motorzaleen jaia urri lehenengoaren 1ean

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 1ean, bailaratik zeharreko urteroko pasealdia eta ondorengo jaia egingo dabe Arratia eta inguruko motorzaleak Arratia Motor Taldeak antolatuta. Bazkaria, jolasak eta, arrastian, kontzertua egongo da, Las Gildas taldearen eskutik.

Parte hartzaileak 09:00etan egon beharko dira Igorreko Berez tabernan izena emoteko. Izena emoten daben lehenengo berrehun eta berrogeta hamarrai kamiseteta oparituko deutsee antolatzaileak. Izena emon ostean, ibilbideari ekingo deusie motordunak, geldialdiak eginez pintxoak jateko. Guztira 120 kilometro izango dira eta helmuga Igorreko eskolatan izango da.

Arrastian, honezkero klasiko bihurtu diran moto-jolasak egongo

dira eta Las Gildas bandeak kontzertua emongo dau. Eguna amaituteko sari banaketea eta zozketea egingo dira.

Urri lehenengoak 1, zapatua

09:00etan, izen emotea Igorreko Berez tabernan. 10 euro. Lehenengo 250ai kamiseteta emongo jakie.

10:00etan, ibilbidea motorrez. Pintxoak jateko geldialdia egingo da.

12:00etan, txosnea zabalduko da.

13:30ean, ibilbidearen amaiera Igorreko eskolatan.

15:00etan, bazkaria izena emon dabenentzat.

16:30ean, moto-jolasak.

18:00etan, sasi-burruntzia izena emon dabenentzat.

19:00etan, Las Gildas taldearen kontzertua.

20:00etan, sari banaketea eta zozketea.



LEHIAKETEAK

Presoen aldeko Argazki Lehiaketea antolatu dau Axular Kultur Elkarteak

Erredakzioa

Lehiaketan parte hartzeako hondartzan, mendian edo urian egin-

dako argazkiak bialdu daitezke urri lehenengoaren 23a baino lehen axularke@gmail.com helbidera. Egile bakotzak gehienez argazki bi bialdu ahal ditu eta argazkiak batera izena eta telefono zenbakia ipini behar dauz mezuan. Irabazleak Hatortxu Rock jaialdirako sarrera bi jasoko ditu sarizat.

Irabazlea botazinoaren bitartez aukeratuko da. Gura dauanak botoa emon ahal izango dau Facebook edo Instagram-en eta Axularren egingo dan argazki erakusketan urri lehenengoaren 24 eta 30a bitartean.



ARRATIAKO KORUA

Agate Deunaren hilobiaren aurrean kantau eban Arratiako Koruak

Erredakzioa

Oin dala 67 urte Arratiako Korua sortu zanetik, santearen hilobiaren aurrean kantetea erronka bat izan da eta aurtengo udan bete egin dabe amets hori. Garagarri-laren 1ean, Arratiako Koruko 25 kantarik, lau kantu kantau ebezan Cataniako katedralean, meza nagusiaren ostean, Ainhoa Uriaren zuzendaritzapean.

Korua sortu zaneko Santa Ageda zaharra, *Ama maite*, Madinaren *Aita gurea* eta agurtzeko, *Agur Jaunak*

izan ziran kantuok. Modu informala-go baten be, Siracusako katedralean eta "Dionisioren Belarria" akustika harrigarriko koba artifizialean be kantau eban. Emozinoz bizi izandako egunak izan dirala dino Ana Sierrasesumaga korukoak.

Madrilgo agentzia baten la-guntzaz

Cataniako katedralean kantetako baimena lortzea ez dala erreza izan dino Sierrasesumagak. Arratiako Koruaren curriculum-a bialdu eban, Koruak Siziliagaz

daukan loturea azalduz: "1968an, lurrikara bat egon zan Sizilian eta Koruak urte haretan batutako diru guztia bialdu eban kaltetuai lagunduteko". Baina hori ez zan nahikoa izan baimena lortzeako. Italia eta Vatikanoko katedralakaz lan egiten dauan agentzia batek kudeatu eban baimena.

Holan, Arratiako Koruak bere ametsa bete egin ahal izan eban. Dana ondo atera zala eta sano hunkigarria izan zala dino korukoak. "Agate Deuna odolean daroagu korukoak eta bere hilobiaren aurrean kantetea ederra izan zan guretzat" dino.

Arratiako Korua

Arratiako Korua Agate Deunaren bezperan santeskean ibilteko beren-beregi sortutako korua da. Urtero, batez be Arratian eta Bilbon kantetan ditu santearen omenezko koplak tradizioari eusteko eta alkartasunezko helburu batez. "Arratiako herrietako jentek osotuten dau eta Arratiagaz zelanbaisteko loturea daukien Bilboko batzuek be bai". Tartean, Ainhoa Uria zuzendaria. Izan be, Uria Bilboko izan arren, familia Arantzazukoa dauka. Eta umetan berak be Arratiako Koruan kantau ebal dino Sierrasesumagak.



Arratiako Korua Cataniako katedralean.

JANTZEA

Jantza Topaketai egindako harrera ona azpimarratu dau Arantzartek

Erredakzioa

Poloniako Kostrzanie eta Koloniako Creadanza taldeak parte

hartu daben 2018ko IV. Jantza Topaketak amaitu eta gero, Arantzarte Dantza Taldeak, sano balorazino positiboa egingen dau

antolatutako jaialdiaz. "Etorritako taldeen jarkerea oso ona izan da eta ekintza guztietan parte hartzeako prest egon dira. Horrezaz gainera, jantzaldiak antolatu doguzan herri guztietan izandako harrera eta emondako tratua eskertu gurako geunke. Euki doguzan gorabeherak aurrera eroateko gauza izan gara eta jentek jantzaldian ikusitakoagaz gustura egotea espero dogu" dino Arantzartetik.



BIZI IGORRE

Bizi Igarreko hainbat kide Torontora joango dira Mundu Mailako Biltzarrerera

Erredakzinoa

Udalak eta jubiladuen alkarreak hitzarmena sinatu dabe Bizi Igarre proiektuko kideai Zahartzearen gaineko XIV. Mundu Mailako Biltzarrerera joaten lagunduteko.

Torontoko (Kanada) egingo da biltzarrera eta han, Igarrek, Bizi Igarre, herria edadekoakaz adeitsua go izateko ekimena, aurkeztuko dau abuztuaren 8an. Programako kideak Biltzarrerera joaten lagunduteko, Udalak eta jubiladuen alkarreak hitzarmena sinatu dabe. Udalak 10.170 euroko diru laguntzea emongo deutso alkarreari horretarako.

Itsaso Bengoetxea medikua eta proiektua abiatu zanean zinegotzi zanak *Bizi Igarre (edadekoagaz lagunkoi proiektua landa eremuan): Alkarlana, herri txiki baten alde onak* berbaldia egingo dau Torontoko Ryerson unibersidadean. Beragaz, Bizi Igarreko hainbat kide be bertan izango dira, euren esperientzia konpartidu eta munduko beste herrietakoen barri jakiten.



MUSIKEA

Hogeta hamar taldek joko dabe gero eta handiago dan Dimetal Fest jaialdian

Urri lehenengoaren 28 eta 29an izango da metalaren jaia Diman. Jaialdia handi egin da aurten eta egun bitan, 30 bandak joko dabe lau eszenalekutan.

Aurtengo Dimetal Festek, batez be Euskal Herrian egiten dan metal musikearen panorama zabala eskeiniko dau, eta bertan, beste batzuen artean, Wäldemar, The Wizards, The Faithless, Niketz, Auritz edo Alma Culter izango dira.



Dimetaleroak prest.

Argazkia: Unai Endemaño.

Erredakzinoa

Kontzertuak amaitzean, goizeko 05:00ak edo 06:00rak arte, Dani Alvarez DJ Jarros-ek barikuan, eta Koldo Munitxa DJ Achtung-ek zapatuan, ipiniko dabe musikea.

Barikuan 5 taldek joko dabe eta 25ek zapatuan. Plazako eszenaleku nagusiari Lemmy izena jarri deusie, 2015ean hildako Lemmy Kilmister Motörhead taldeko liderraren omenez, eta

bertan, beste batzuen artean, Angelus Apatrida, Crisix, Auritz eta The Faithless taldeak joko dabe. Abaroa Aretoa barriz, Koba eszenalekua bihurtuko da eta han death metal eta musikarik gogorrena egiten daben taldeak joko dabe: Sönambula-k, Alma Culter-ek, Kartzarot-ek edo After Life-k, barbarako.

Frontoi txikian, Infernu izeneko eszenalekua egongo da. Han Wäldemar, The Wizards edo Niketz

taldeak joko dabe. Eskolako patioan ipiniko daben karpan egongo da laugarren eszenalekua, EH Matxete izeneko, eta han talde hasibariak metalaren atzenengo joerak entzuteko aukerea eskeiniko dabe.

Herri metal kirolak

Kontzertuez gainera, ondo pasetako beste aukera asko eskeintzen ditu Dimetal Fest jaialdiak, beste hainbat jarduera musika heavy-aren gaira ekarriz. Unai Endemañoren argazki erakusketea

egongo da Dimako informazio bulegoan, baita Dani Alvarez EITBko kazetariak gidatutako eztabaidea, umeentzako jolasak, metal bazkaria, metal olinpiadak edo herri metal kirolak. Atzen honetan, Wäldemar taldeko gitarrak-jolearen erritmora egingo dabe aizkoran Irati Astondoak eta Aitzol Atutxak; trontzan, Jon eta Aitor Loiolak eta ingudea altxauko dau Haizea Ziarrustak. Erromeria be egongo da zapatu gaubean 03:30etik 05:30era, Ezten giro taldeagaz.



Jaialdiko taldeen kartela.

Arratia ubide eta zeberiko euskerea eta kulturearen alde

Egin zaitez zeu be **begitu-lagun**

Hamabostero begitu zeure etxean

Etxean jasoko dozuz zertu kultur Elkarteak ateratako produktuak.

Hamabostean behin sari itzelen zozketan parte hartuko dozu.

Izen-abizenak: _____
 helbidea: _____
 herria: _____
 Telefonoa: _____
 E-posta: _____
 Urteko kuota aukeratu: 35€ 55€ 75€

Zertu Kultur Elkarteak
 Berrito Plaza 21, 20112 Artea

begitu

AGENDEA

ABUZTUAK 1
IGORRE

Urri lehenengoaren 6ra arte, Igorreko Jubiladuen Errioxarako txangoan izena emoteko epea jubiladuen lokalean. Txangoa urri lehenengoaren 13an izango da.

ABUZTUAK 4
DIMA

Artaungo jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.
ZEANURI
Otzerinmendiko jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

ABUZTUAK 5
AREATZA

Areatzako Mendi Martxan izena online emoteko epea zabalik urri lehenengoaren 20ra arte, www.areatzakomendimartxa.blogspot.com webgunean.
ZEBERIO
San Adrian jaiak Argiñan.

ABUZTUAK 10
BEDIA

Murtatzako jaiak. 12:00etan, mezea Murtatzan; ondoren barauskarria eta trikitixea; Mus Txapelketea; 17:00etan, Briska Txapelketea (bikoteko bat gitxienez herrikoa).
LEMOA
Azurrekako jaiak. 12:00etan, meza nagusia San Lorenzo ermitan; ondoren, barauskarria trikitilariakaz; 18:00etan, umeentzako jolasak eta Igel Txapelketea.
ZEBERIO
Elizondoko jaiak.

ABUZTUAK 13
ZEANURI

Zeanuriko jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

ABUZTUAK 14
ZEANURI

Goizaldeko 02:30ean eta 05:00etan jaietatik etxera bueltetako autobusak doban. Arratiako Udalen Mankomunitateak antolatuta. 30 urtera arteko gazteentzat.

Kalakan taldea abuztuaren 27an
Areatzako Zubizarra plazan

Kalakan perkusionista eta kantari hirukoteak famarik handiena hartu eban 2012an Madonngaz egindako ikuskizunean, Michiganekoa euskeraz kantetan ipini ebanean. Taldeak, hilaren 27an, 22:00etan, Areatzako Zubizarra plazan joko dau, herriko jaietako egitarauaren barruan. Euskal kantu tradizionalak era modernoan jotzen ditue. "Irganaz harro eta errespetuz beteak, etorkizunari zuzenduak, haien kultura milenarioaren modernitatea orainean idaztea daukie helburu. XV. mendetik gaur egunerainoko kantuak eskeintzen ditue, euren konposizioai lekua itxiz" dinoe euren webgunean.

ABUZTUAK 15
DIMA

Olazabalgo jaiak. 12:30ean, Txakolin Eguna; 18:30ean, antzerkia *Salam*.

IGORRE

Udako jaiak. 12:30ean, mezea; 13:25ean, barauskarria Goiko Plazan; 16:00etan, Briska, Mus eta Tute Txapelketak Beheko Plazan (bikote bakotxa modalidade bakarrera apuntu ahal izango da). Izen emotea, 15:30ean. Saria: euskal produktuen otzarea; 17:30ean, Igel Txapelketea. Izen emotea 17:00etan; 18:30ean, DJ Isma. Bitartean txokolata.

ZEBERIO

Andramarietako jaiak Zeberioan.

ABUZTUAK 16
BEDIA

12:00etan, mezea San Roke ermitan; hamaiketako, trikitixa eta jantzak.

DIMA

San Roke. Olazabalgo jaiak 08:30ean, ibilbidea llunbera; 12:00etan, meza nagusia; 13:30ean, Nagusien Bola Txapelketea; 16:30ean, Umeen Bola Txapelketea (6-9 urte); 18:00etan, umeentzako baloiak; 18:30ean, *Olazabalgo begiradak* argazki emonaldia; 19:30ean, txokolata; 20:00etan, zozketea.

ABUZTUAK 17
DIMA

Olazabalgo jaiak. 14:00etan, auzo bazkaria eta bazkalostean Kantu Bat Gara taldea.

IGORRE

18:00etan, Andra Mari futbol torneo. Arratia vs Leioa. Urbieta zelaian.

ABUZTUAK 18
AREATZA

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, urtekerea Bizkaiko Arkeologia Museoaren lankidetzegaz. Juan Carlos López Quintana adituagaz, Errekatuetako Atxako trikuharria eta bere ingurura bisita. Bertan aurkitutako gorpuzkien analisisari buruz eta fenomeno megalitikoari buruz egingo dau berba. Izen emotea *gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus* helbidean edo 94 673 92 79 telefonoan.

IGORRE

18:00etan, Andra Mari futbol torneo.

Amorebieta vs Santurtzi. Urbieta zelaian.

ABUZTUAK 19
IGORRE

18:00etan, Andra Mari futbol torneo finala.

ABUZTUAK 22
AREATZA

22:00etan, Radiocrimen taldearen kontzertua Motxo tabernan.

ABUZTUAK 23
AREATZA

Areatzako jaiak. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

ABUZTUAK 24
ZEBERIO

San Bartolome jaiak Urizarren.

ABUZTUAK 28
AREATZA

Goizaldeko 02:30ean eta 05:00etan jaietatik etxera bueltetako autobusak doban. Arratiako Udalen Mankomunitateak antolatuta. 30 urtera arteko gazteentzat.

ABUZTUAK 30
ZEBERIO

Zeberioko jaiak. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

URRI LEHENENGOAK 1
IGORRE

Arratia Motor Taldeak antolatuta, XVII. konzentrazioa eta jaiak. 09:00etan, izen emotea Igorreko Berezi tabernan; 10:00etan, ibilbidea motorrez, pintxoak jateko geldialdia egingo da; 12:00etan, txosnea zabalduko da; 13:30ean, ibilbidearen amaiera Igorreko eskoletan; 15:00etan, bazkaria; 16:30ean, moto-jolasak; 18:00etan, sasi-burruntzia; 19:00etan, Las Gildas taldearen kontzertua; 20:00etan, sari banaketara eta zozketea.

URRI LEHENENGOAK 2
LEMOA

Jaiak San Antolinen. 12:00etan, mezea eta barauskarria; 14:00etan, Baba Lehiaketea; 17:00etan, erromeria Jokaldi taldeagaz. Autobus zerbitzua egongo da 10:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU
BASERRIA SALGAI

Baseri barriztua saltzean da Areatzan. 210 m², 3 solairutan bananduak. 4 logela, komun bi. Terrenoa etxe inguruan. Herritik oso hur. 685 717 504 (Garazi).

AUTOKARABANEA SALGAI

Mercedes Viano Marco Polo salgai. Westfalia autokarabanea. 2.2 CDI 150 zaldi, automatikoa, 2004. urtekoa 215.000 kilometro. Granatea. Interesdunak 665 706 388 telefonora deitu.

DANERIK
TRIKITIXEA EROSTEN DOT

Bigarren eskuko trikitixea erosten dot, Sol tonoa balego hobe. Interesdunak 657 707 725 telefonora deitu.

GELA ALOKAIRUAN LONDONEN

Autobusez erdigunetik 30 minututara dagoan gela alokatzen da Londonen garagarriaren 14tik urri lehenengoaren 29ra. Interesdunak idatzi ugetka2@

hotmail.com helbide elektronikora.

ETXE BILA

Arratiatik baseri-etxe bila gabizan 4 andra gara (etxerako modukoak). Alkilerrean. Interesdunak 685 707 176 zenbakira deitu.

ESKOLA PARTIKULARRAK

3. DBH egitera doan Igorreko mutil batentzako persona bat behar da euskera, gaztelania eta ingeles ikasgaietan laguntzeko. Astean 3 ordu, urri lehenengoan hasita. Interesdunak estilanipa@gmail.com helbidera idatzi.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

BEGITUKO kamiseta bana.

Josetxu Iturriaga (Areatza)
Galder Olibares (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 16


urte eta

ehundaka

lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Baserri-etxe. 2.- Umeen berbetan, ogia. Sufrea. 3.- Fosforoa. Suagaz batera. Errepetiduta, kontuz. 4.- Bizkaiko ibaia. Letra izena. 5.- Hauskor. 6.- Motrailu. Birritan, umeen berbetan, ibili. 7.- Lutezioa. Kriptikoa. Bokala. 8.- Bostehun erromatar. Gartsu. 9.- Irudikeria.

GOITIK BEHERA

1.- Bigarren letra. Gozaldi. 2.- Hotza adierazoten dau. Bukaera. Berrogeta hamar erromatar. 3.- Estutu. Zu eta ni. 4.- Denpora bitarte mugatu. Erdiko bokala. Greziako uhartea. 5.- Tantaloa. Hona garraiatu. 6.- Hamar erromatar. Eskuratu. India. 7.- Neurria. Oxigenoa.




Topau hemeritzagarren mendean asmatu ziran zazpi gauza.



AKI MI KO

Kailo Ren



umean moda
seim
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

AKEITEGIA
GATY & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendaketa, s/n 48530 LEZMOA, Bizkaia
Tel: 609 482 830 / 609 206 717

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel: 94-673-70-87
Tel: 609-79-40-54

ZEKUTZE
JATEXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel: 94 631 52 83
zekutsujatexea@hotmail.com

Pinturas Anatia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu. Bizarra egin eta bukunduten dogu.
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

SOLUZIOAK ALOKATZEN DITUGU



Basoak garbitzeko makineria



ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ALKIZABAL

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDIETA ETA INDUSTRIARAKO
MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIRUA ETA SALMENTA

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

